



EBE BAS 1

SESSION 2017

**CAPES
CONCOURS EXTERNE**

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

COMPOSITION ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

INFORMATION AUX CANDIDATS

Vous trouverez ci-après les codes nécessaires vous permettant de compléter les rubriques figurant en en-tête de votre copie

Ces codes doivent être reportés sur chacune des copies que vous remettrez.

▪ **Concours externe du CAPES de l'enseignement public :**

Concours
E B E

Section/option
0 4 4 0 E

Epreuve
1 0 1

Matière
7 4 1 4

Epreuve écrite de langue basque

Sujet

Ondoko bi testuetan oinarrituz azpiko hiru galderak landuko dituzu :

1-Zein da, bi testu hauetan, herriak (jende arruntak) duen gertakizun historiko handiekiko harremana?

2-Iparaldeko eta Hegoaldeko bizipen ezberdinek progreso historikoaren ideia berdinak sortu ote dituzte, testu hauen arabera?

3-Konpara itzazu bi idazleek dituzten baliabide literarioak eta erretorikoak beren ikuspegi historikoa pasarazteko.

“Lehen eta Orai”¹

Izan nauk ipharrera hego aldetik,
Iguzkiko partera mendebaletik,
Eta diat ikusi guzien gainetik,
Inozenzia hainitz gizonen parterik:
 Abila hargatik
 Duk egundainotik,
 Egin gabe deusik,
Ederkiena bizi bertzen lanetik!

Munduan jarri zuan injustizia,
Nagusitu zelakotz Alferkeria.
Zenbait abilek, ez dik denbora handia,
Beretua zutela mundu hau guzia :
 Hik, laboraria,
 Eragin hazia
 Eta bil bihia!
Abilarentzat zuan ogi xuria.

Aditu diat ere bazka onenak
Ez zituela zaldi nekhatzen zenak;
Oilo, oilasko eta oilanda gizenak
Jaten ez zituela hazten zituenak;
 Janhari finenak,
 Arno gozoenak,
 Gauza hoberenak,
Abilek zituztela iresten denak!

Sortzetik hiltzeraino, Laboraria,
Uztarri pean zuan hire tokia;
Eta, bethi lanean higatuz bizia,
Hirerik ez zukeian non pausa erhia;
 Bertzena guzia?
 Zer injustizia
 Ikharagarria!
Azienden herrunkan hintzen jarria!!!

Hogoi mendez bedere hola munduan
Gizona gizonaren esklabo zuan;
Abilek ezarria urrezko tronuan
Bazuan bat errege guzien buruan;
 Haren inguruan.
 Alferrak zituan
 Bizi deskantsuan.

¹ Orthographe normalisée.

Eta gu lanarekin bethi guduan.

Lagunak, ez duk errex orai sinhesten
Jenden inozentzia nolakoa zen;
Erregeren nahia baldin hala bazen,
Miliunka zitian gizonak altxatzen:
 Harmak har-arazten,
 Lerroan ezartzen,
 Gerlarat igortzen,
Eta han inozentek elgar xahutzen!

Zinez zorigaitzeko denbora hetan
Nolako miseria zen bazterretan!
Pobreak bilhuziak non nahi bidetan,
Hotzak eta goseak hilak erdietan!...
 Zenbat ama hetan
 Haurrak besoetan
 Gaxoak herrestan ?...

Ethorri zuan bada noizbait orena
Gizona herrestatik altxatu zena !
Eta, porroskaturik gathe zakharrena,
Bere gizon dretxoak hartu zituena!
 Hau gure aitena
 Duk obra lehena
 Eta ederrena :
Gizona esklabotik egin zutena !

Xoil ez dik ehun urthe, lagun maiteak,
Gizonaren herrunkan gure jartzeak;
Lehen, batzu nagusi; esklabo bertzeak;
Iduri Aita baten ez ziren umeak!
 Geroztik, jendeak
 Handiak, xumeak,
 Aberats, pobreak,
Lerro berean gaitik jarri legeak!

Ala dadin aberats ala pobrea,
Gizona gizonaren duk haurridea;
Eta bertzez gorago nahi izatea
Gure anaiari duk laido egitea ;
 Elgar aditzea,
 Elgar maithatzea,
 Eta laguntzea,
Hori duk egiazko Jainko-legea!

Jean-Baptiste Elizanburu, 1879

[...]

Garai hartan [altxamendu frankistaren hasieran] erabaki gabe zuten Alderdikoek [PNV-EAJkoek] gerran sartu ala ez. Horixe zen, Paco Buenon [Donostiako ostatu bat] biltzen zirenean, UGTkoek [ezkerreko sindikatu espainola, gerla garaian Errepublikaren alde borrokatu zena] sarritan leporatzen zietena: denbora gehiegi eman zutela non kokatu pentsatzen, faxisten aurka jartzea erabaki zuten arte.

Modu askotan saiatzen ziren salaketa horretatik libratzen, baina Amianok [pertsonea nagusiaren lagun abertzale sutsua] gehienetan esaten zien gorrien eskutik joateak ere ez ziela halako gogo bizirik pizten, haien atzetik ibili behar zutelako beti, elizak eta komentuak erre ez zitzaizkien zaindu ezinik; eta besteek [UGTkoek], berriz, ez zirela apaizen gonapetik ateratzen arrapostu. “Kalonje bat lehendakariaren aholkulari” esan, eta barre algaraz hasten ziren.

Berak [pertsonea nagusiak, abertzalea], bakarrik zeudenean noski, arrazoi ematen zien gauza batzuetan [UGTkoei], Amiano haserretu egiten zitzaion arren. Onartzen zuen izan zela Alderdian zalantza egin zuenik, baina Errepublikaren alde gerran sartu izanari esker, hots, gerra galduz, irabazi egin zuten; duintasuna irabazi zuten, berentzat eta etorriko ziren belaunaldientzat. Hala pentsatzen zuen.

Behin, hitzen inertzia hutsagatik, “inorekin sartu ez bagina [gerlan], hobe” etorri zitzaion burura. Hori ere askotan gertatzen zitzaion, pentsamendu bat besterik gabe etortzen zitzaioala gogora, hitz batek beste bati dei egiten ziolako, bertsolariei gertatzen zitzaion antzera.

Horregatik, beste askotan bezala “gerra bai, baina duintasuna ez genuen galdu” eta antzekoak esaten ari ziren batean, “sartu ez bagina, hobe” bururatu zitzaion berari. Ez zuen esan noski, eta isiltasun horretaz ere damu zuen, gustatuko baitzitzaion jakitea zer erantzungo ote zuen Amianok halakorik adierazi balio. Zehatzago esateko, interesatzen zitzaiona Amianok jarriko lukeen aurpegia ikustea izango zen, besterik gabe; nahi izanez gero, berak ere erraz arbuia baitzezakeen ideia hura.

Amianok epelegitizat hartu izan zuen beti; usteltzat ez, epelegitizat. Horixe uste zuen, horren inguruko adierazpen argirik sekula egin ez zion arren. Hala eta guztiz ere, “sartu ez bagina, hobe” hura ez zuen egiazki bere pentsamoldearen adierazpentzat onartzen, hasieran, nolabait esateko, adimenaren mugimendu errelexu baten antzekoa izan baitzen; eta buruan bueltaka bazerabilen, ez zen gerran ibili izana damu zuelako –bertan galdu zuen guztia kontuan harturik, eta bizitzan porrot egin izana gerrari egotz ziezaiokeen neurrian, ulertzekoa izan zitekeen arren–, baizik eta ideia hura –“sartu ez bagina, hobe”, bere buruan sortua izanik ere arrotza egiten zitzaiolako.

Baina leloa –“sartu ez bagina, hobe”– adimenean finkatzen zitzaion neurrian, hainbeste denboran halakorik lehenago bururatu ez izana gertatzen zitzaion harrigarria. Ezin jakin zuen ideiarekin funtsarekin ados ote zegoen –ados egotea jasandako sufrimenduak alferrekoak izan zirela onestea litzatekeen neurrian, normala ideia hura arbuiatzea zen–; baina ez zuen gogoz kontrakoa, antza, buruan bueltaka ibiltzea.

[...]

Ramon Saizarbitoria, “Gudari zaharraren gerra galdua”, *Gorde nazazu lurpean*, 2000

EPREUVE DE TRADUCTION

Texte en langue régionale à traduire en français

Negarra begian

Argi hastera. Zalu noa, negarra begian. Ene urrats deliberatuen oihartzuna hedatzen dute Baionako **harresi** zaharrek, bide **harriztatu**n gaindi. Malko bat lerran doakit begi izkinatik matelan behera: brista, ahurrean lehertu dut.

Ez naiz triste. Batere.

Goiz hotza da gaurkoa eta firfira freskoxeak harrapatu nau autotik ateratzean, sudurzuloetan gora zihoakidala aire ia izoztuak sesitu nau, hatsa moztuz eta begiak xistatuz: betazalak kliskatu behar izan ditut bizpahiru aldiz **harridura** haizatzeko malko batez.

Goiz da oraindik, igartzen baizik ez den eguzkiak ortzi-muga urreztatzen du horailetik gorraileinoko abanikoa eskainiz. Lanerako ohiko bidean, aireak usaian baino garbiagoa dirudi, egun hasteko argi gardenak eta izar-ihintzak bezperako kutsadura erantzi bailioten. Bakarrik noa, haia-haia, zubi-altxagarria iraganez, maldan behera ibai ertzera juntatzeko, hiri guzia oraindik lotan dagoela. Banoa, arin, sorbeltzen balleta eta txori hiritar zenbaiten tiuten artetik, isilik. Arnasa hartzen dut, sakon eta kresalez kargatu itsas-aire bipil eta lerdena, hastear den egun birjinalaren antzekoa, zintzurrean behera bular zolarainoko bidean sentitzen aplikatzen naiz. [...] Orduan ez dut dudatzen, ez arrazoikatzen, firrindaka noa, distirant.

Bea Salaberri, *Baionak ez daki*, 2015

Après avoir analysé les formes soulignées vous présenterez le traitement de la composition et de la dérivation en basque et en français. Vous justifierez ensuite votre traduction en vous appuyant sur l'analyse de la séquence et sur votre présentation théorique.

Texte en langue française à traduire en langue basque

Au bout d'un moment, je suis retourné vers la plage et je me suis mis à marcher.

C'était le même éclatement rouge. Sur le sable, la mer haletait de toute la respiration rapide et étouffée de ses petites vagues. Je marchais lentement vers les rochers et je sentais mon front se gonfler sous le soleil. Toute cette chaleur s'appuyait sur moi et s'opposait à mon avance. Et chaque fois que je sentais **son** grand souffle chaud sur **mon** visage, je serrais les dents, je fermais les poings dans les poches de mon pantalon, je me tendais tout entier pour triompher du soleil et de cette ivresse opaque qu'il me déversait. A chaque épée de lumière jaillie du sable, d'un coquillage blanchi ou d'un débris de verre, **mes** mâchoires se crispaient. J'ai marché longtemps.

Albert Camus, *L'étranger*, 1942

Après avoir précisé la nature et la fonction des unités soulignées, vous expliquerez leur emploi dans chaque séquence. Vous justifierez ensuite votre traduction.